BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

6090

AGINDUA, 2011ko azaroaren 17koa, Kulturako sailburuarena, arte plastiko eta ikusizkoak sustatzeko 2011ko edizioko Gure Artea Sariak direla-eta modalitate bakoitzean saritutako pertsonen zerrenda jakinarazten duena.

2011ko martxoaren 2an argitaratu zen EHAAn 2011ko otsailaren 17ko Agindua, Kulturako sailburuarena, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko Gure Artea Sariak arautu eta horietarako deialdia egiten duena.

Aipatu otsailaren 17ko Aginduaren 7.3 artikuluak jasotzen du modalitate bakoitzean saritutako pertsonen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela.

Horiek horrela

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Arte plastiko eta ikusizkoak sustatzeko 2011ko edizioko Gure Artea Sariak direla eta, modalitate bakoitzean saritutako pertsonen zerrenda jakinaraztea:

– Ibilbide artistikoa aitortzeko saria: Agustín Ibarrola Goicoechea.

– Sorkuntza-lana aitortzeko saria: Maider Lopez Saenz.

– Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria: Santiago Eraso Beloki.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 17a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.